


# Arkupéan

urola kostako hitza  
2013ko urriaren 3a

II-III Iritzia

VI-VII Sakonean 'Suite', elkarlanaren emaitza

VIII Azkena Patinak, haizea hartzeko



**Xabier Euzkitze**

**Zuzeneko eztarritik**

Xabier Euzkitze telebista aurkezlea, esataria eta pilotazalea. ONINTZA LETE ARRIETA



**ENERGIA AURREZTEKO SISTEMAK  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK**

- Eraikuntza berriak
- Etxeko erreformak
- Merkataritza eta ostalaritza
- Komunitate mailako mantenuak

**ARGIZTAPENA**

- Kontsumo txikiko lanparak
- Led-s Teknologia

**DEKORAZIOA - OPARIAK**



**Araba kalea, 41 ZARAUTZ**  
Telf.: 943-13 04 33  
Mug.: 619 523 539  
azkuelek@euskalnet.net



**Aurrekontu pertsonalizatuak**

**ETENGABEKO BERRIKUNTZAREN BIDEAN, ORAIN INTERNETEN GAUDE**

[www.azkuelek.com](http://www.azkuelek.com)

**Gure produktuak eta zerbitzuak ezagutu klik batean!**



**AIRE EGOKITUA**  
Hotza edo beroa, sasoiaren arabera, makina berarekin  
**Kontsumo txikia!**  
Jarri zure etxebizitzan, komertzioan, ostalaritza gunean edo industria arloan

# Fatxada



**Bostekoa**

Alex Silva

**A**zinezalea naiz. Zinea oso gustuko dut. Azkenaldian, egia esan, ezin izan diot nahi beste denbora eskaini. Hala ere, pasa diren asteetan denbora errekerperatu dudala esango nuke.

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak aukera hori eman dit. Ez naiz izan ni zinemaldi horren oso aldekoa. Oso zinemaldi elitista izan dela esango nuke, baina zuzendaritza aldaketak on asko egin dio proiektuari. Jose Luis Rebordinosen agindupean leihatilako zinema komertzial eta ikusleen gustura gehiago egokitzaren diren film motetara gerturatu da Zinemaldia. Gainera, horren erakusgarri nagusi dira zine aretoen kanpoko aldean sortu diren ilara luzeak edota zein azkar agortu ziren film askotako txartelak.

Hala ere, horrelakoek beti ematen dute aukera kritikatzeko, gizartearen alde ilunak ateratzeko,



Azpeitian emakumeak danborra jotzen, sansebastianetan. HITZA

aldarrikapenak egiteko... Eta uste dut euskal zinemak ez duela aukera hori galdu.

Euskal egileen dokumentalak ikusi nituen. Esaterako, Donostiako 200. urteurrenaren dokumentala, ETB Galan aurkeztu zutena; Iruñeko entzierroen inguruan 3Dn egindako dokumentala, non Azpeitia ere azaltzen den segundo batzuek; behar bada gehien hunkitu nauena, *Alardearen seme-alabak* deituri-

ko dokumentala. Jone Karresek eta Eneko Olasagastik zuzendutakoa.

Filmak Irungo eta Hondarribiko alardeen gaia lantzen du. Zehazki, emakumeek haietan jokatzen duten papera eta ohiko partaide moduan parte hartzeko izan duten arazoak. Oso irudi gorrak agertzen dira, lekukotasun harrigarriak, oilo ipurdia jartzen duten adierazpenak... Dokumentala ikusi bitartean,

sentimendu kontrajarriak sortzen zaizkizu barrenean. Batzuekin beste batzuekin baino identifikatuago sentitzen zara, Poliziaren ekintzekin asaldatzen zara, politikoen ganoragabetasunak haserretzen zaitu...

Ez dakit, beharbada, filmaren esaldi batekin geratuko naiz: «Alardean gertatzen dena ez da arazoa, arazoa gizartean dago, alardean gertatutakoa matxis-

moaren sintoma hutsa da». Egia da. Lotsagarria izan beharko luke guztiontzako XXI. mendean horrelako egoerak gertatzea Euskal Herrian. Nik horrela ikusten dut, lehen mailako eta puntako herria garen honetan tradizioaren izenean batzuetan, bestetan beste aitzakia batzuekin, emakumea bazterten dugu. Ez da bidezkoa.

Saiatzen gara saltzen berdintasunean hezitako gizartea dugula, hartutako neurriek bere helburua bete dutela, etorkizuneko belaunaldiak aske eta berdintasunean biziko direla... Hori sinestarazi digute, baina egia da?

Ez dakit, nik uste fatxada dela dioguna. Horrelakoetan ikusi ditzakegu erantzunak. Karresen eta Olasagastiren dokumentalean aipatzen da kanpokoek ezin dugula ulertu alardearen gaia, guk ez baitugu barrutik bizi, ez baitugu sentitzen. Egia da, Azpeitian antzerako zerbait gertatzen da, baina horrek ez du matxismoa eta alardean gertatzen den indarkeria justifikatzen. Azpeitian emakumeak ateratzen dira danborra jotzen danborradan. Zenbait taldeetan aspaldi, beste batzuetan orain gutxitik, baina denetan daude emakumeak. Eta benetan diot, ez dut uste horrek jaia izorratu duenik, aberastu baizik.

## Irudia > Azpeitia



# BOTIKEN BERRORDAINKETAREN, AURKA SINADURA BILA

Botiken errezeten berrordainketaren kontrako sinadurak biltzen ari da Duintasuna Gipuzkoako jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak Azpeitian. Araba, Bizkaia, Gi-

puzkoa eta Nafarroako beste elkarteekin batera jarri du Duintasunak sinadura-bilketa martxan, eta lau lurraldeetan 10.000 eta 17.000 sinadura artean biltzea du

helburu. Nafarroako Parlamentura eta EAEko legebiltzarrera helaraziko dituzte ondoren. Uztailaren 1ean jarri zuten botiken berrordainketa abian. UZTARRIA

**Gutunak****Orxata saltzailea, zarauztarrei**

Zuei, batez ere orxatazaleei zuzentzen naiz, argi eta garbi esateko Zarauzko Udalak ezarritako zergek ezinezkoa egiten dutela herrian lan egiten jarraitzea.

Aurten udalak ekaineko hila-bete osoa ordainarazi zidan (101 euro) baina hilaren 17tik aurrera baino ez zidan malekoira joaten utzi. Baimena iristen ez zela eta, ekaineko 10etik 16ra bitarterako astean orxata saltzeko oso egun onak galdu nituen; ordainduta nituen, alabaina. Zuzena al da hilabete osoa ordaindu eta hilabete erdian ere malekoian ezin egotea?

Ekainean bertan prentsan argitaratu zituen enkanteen iragarkiak niri ordainarazi zizkidan udalak (210 euro), berez ez zegoikidana. Udalen betebeharra da gisa horretako iragarkiak argitaratzea, nik ez nuen zertan ordaindu.

Ni batetik bestera ibiltzen naiz orxata saltzen, ez naiz toki batean geldirik egoten. Horregatik, «espazio publikoa okupatzeagatik» 404 euro ordainarazi didate. Edozein modutara, nire bizikleta-gurdiak 2 metro koadro hartzen duela kontuan izanda, gehiegizkoa da prezioa.

Uda hasieran bermea ordaindu behar izan nion udalari (90 euro), baina itzuli behar zidan garaian ez zidan itzuli. Erreklamatu nuenean, «pasa» egin zitzaizela esan zidaten, eta eskaera bat egin behar nuela... Ez zen

nire akatsa, ordea. Eskaera egin behar izan nuen, bestela ez baitzidaten itzuliko bermea.

laz eta aurten zarauztar askok orxata naturala ezagutu dute; hainbati gustatu ere egin zaio, eta orxata zale handiak ere baditugu herrian. Gure artera etortzen diren kataluniarrez eta besteez ez dugu hitz egingo. Hainbat gaude horretaz. Gure gurdiak hondartzari zein on egiten dion esan digutenak ere ez dira gutxi. Lastima da udalak bere diruzalekeriaz eta bere zintotasun faltaz lan hori guztia zapuztu izana.

Eskerrik asko.

**Pablo Sastre, Zarauzko orxata saltzailea.**  
Zarauz.

**Herri batzordetik herri kontsultara**

Dudan informazioa zuzena bada, Hondakin Batzordeak bukatze du bere lana Zarautzen, bertako partaideek zerbait gehiago nahi badute ere.

Batzorde honek erabakia omen du hondakinak bereizteko Zarautzen ezarriko den sistema obligaziozkoa izango dela herritar guztientzat; 2014ean ezarriko dela (hilabete oraindik ez dute zehaztu); hondakinen % 70 bereizteko helburua lortu behar duela sistemak 2014ean bertan; helburua betetzen ari den jarraipena egiteko kontrol-sistema ezarriko dela, eta helburua lortzeko behar diren zuzenketak egingo zaizkiola

gauza nola doan ikusita. Adostasun horiek lortzen egin duten lanarengatik nire esker ona batzordeko kideei.

Hori hala bada, batzorde horrek bere helburua bete duela uste dut, eta alferrikako dela orain bilketa-sistema posible guztietatik Zarautzerako onena zein den erabakitzen jardutea, elkarrekin gehiago haserretzea besterik ez dugulako lortuko, nire iritzian.

Batzorde hori sortu zen udala ez zelako gai izan bere garaian erabakiak hartzeko, eta orain batzorde horrek pilota berriro udalari itzuli behar diola iruditzen zait. Batzorde horretako partaideek posizionamendua finkoa eta aldaezina dute hasiera bertatik. Beraz, sistema konkretu bati buruzko adostasun batera iritea ezinezkoa da, udalak bere lasaitasunerako hala nahiko balu ere.

Batzorde horretan hainbat bilketa-sistemaren aldeko partaideek beren proposamena zehatz idatzi beharko lukete, Udaleko teknikariek teknikoki baloratu, batez ere ekonomikoki bideragarria den ezagutzeko, eta udalaren esku utzi honek herri kontsulta loteslea egin dezan urte honetann barnean.

Ez eman buelta gehiago, herritarrok erabaki dezagula A, B, C, D, E, F edo G sistemaren alde gauden eta kito. Kontsulta aurreko egunetan nahikoa denbora izango du talde bakoitzak hitzaldiak eman eta sistema bakoitzaren alde onak azaltzeko.

Luzarora begira, Gipuzkoan hainbat sistema jarriko dira martxan, eta denbora pasa ahala herri bakoitzean ikusiko dute aukeratu duten sistemak zein alde on eta txar dituen, eta alboko herrian zer gertatzen ari den. Helburu bera lortu nahiak, kostuek, kontrolek eta herriaren erantzun jarriko dute bakoitzaren tokian, nahiz eta alferrik gastatuak izango diren ordurako denbora, haserreak eta diru asko.

Oharra: Egun hauetan Hondakin batzordekide batekin hitz egin dut idatzi honi buruz, eta baikor dago, oraindik adostasun zabal bat lor daitekeelako bilketa-sistemaren inguruan. Denborak esango du.

**Martxel Aizpurua.**  
Zarauz.

**Soldatak behera, karnetaren prezioa gora**

Dena gora doa, soldatak izan ezik. Nik gidabaimena atera nuenean 110 mila pezeta ordaindu nuen, eta soldata normal bat 160 mila pezetakoa zen. Gaur egun, gidabaimena 2 mila eurotik 3 milara bitartean ordaintzea normala da. Soldatak, berriz, 1.500 eurotik behera daude. Gainera, ordainagiriak nola eginda dauden ondo begiratzea komeni da, hanka-sartze txiki batekin (noski, beti beren aldera) 400 euro garestiago irtingo bailitzaiguke. Sorozabal delako auto eskola batek, non Gipuzkoa osoan zehar autoes-

kolak dituen, nahierara erabiltzen ditu datuak, nahieran erabiltzen ditu langileak, batetik bestera, ikasleak nahastuz. Bai, halakok prezio bat esan, hurrengo egunean besteak hori ez dela horrela esan; hori Donostian bai, Azpeitian ez, Zumaiian Azpeitian bezala ordaindu behar duzu, azterketa beraiei komeni zaienean gaindituarazi azterketa egilearekin adostuz. Noski, ikaslearen adina hainbat ikastordua egin beharra dago nonbait, eta ikasleak ez esaten duenean gaindituarazi egiten zaio, azken hau ez dagoenean klase gehiago emateko prest. Bestalde, aspalditik dator *Berria*-ko harpidedunentzat %10eko deskontua dagoelakoaren iragarkia, baina ez du iragartzen derrigorrez harpideduna denak ordainduta seme, alaba edo emazteak gidabaimena atera dezakeen edo ez. Azkenik deskontu hori egitekotan probintziako salneurri garestienak erabiltzen dituzte, eta deskonturik gabe baino garestiago irtingo litzaizuke. Ez naiz harriztzen gazte askok Espainiako hegoaldean ateratzea gidabaimena, erdi prezioan irtingen da eta. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuari ere zorionak eman beharko dizkiogu horrelako gauzak errazteagatik. Enpresak ondo joateko modua izango da bezero bakoitzari dagokiona baino 300, 400 euro gehiago kobratuz.

**Joxe Mari Agirre.**  
Zumaiia.

**Hemeroteka****Hizkuntzaren erasoan aurrean erantzuna**

Euskarak arlo askotan jaso ditu azken aldian erasoak. Gure inguruan azkena, Zarauzko Udalak, hizkuntz irizpide berriengatik Urkijo Espainiako delegatuaren bidez jasotako helegitea izan da. Ez da lehen udala izan, eta arazoa, beraz, ez da gure herrira mugatzen; arazoa nazionala da. Eraso zaparrada hau dela eta, atxikimendu eta konpromiso kanpaina abian jartzea erabaki dugu. Ondoren etorriko diren ekintzei eta deialdiei babes pertsonala zein erakunde mailakoa ematea eskertuko genizuke:

Zarauzko Udalak, Otsailaren 27an onartu zituen hizkuntz irizpideen bidez, euskaraz bizitzeko bidean pausu bat eman zuten. Euskarari lehentasuna ematen diete hizkuntz irizpide hauek eta alderdi guztiek, PPK izan ezik, bat egin zuten hauen onarpenean. Orain, Estatuko

abokatuak auzitara eraman du Zarauzko Udala, herritarrekiko tratua nahiz kontratazio publikoak euskaraz egiteak legea urratzen duela argudiatuz.

Gure nahiak guztiz zilegi dira, munduko beste edozein herritarrek bezala bizi nahi dugu, geure hizkuntzan. Bada garaia euskarak merezi duen estatusa izan dezan. Bada garaia gure hizkuntzan lasaitasun osoz bizi gaitzen. Zarauzko udalak eta beste 35 udalerrik hori ahalbidetzeko pausuak eman dituzte eta oztopoak datoz orain. Zarauzko euskalgintzak eta bertaratutako eragileek babes osoa eskaini nahi diegu herri hauei eta hauen hizkuntz irizpideei.

Eraso honen dimentsioa ikusita, gure konpromisoa agertzen dugu euskaraz bizitzen segitzeko batetik, eta eraso hauek salatze hurrengo asteotan antolatuko diren ekimenetan parte hartzeko bestetik **Zuzeu Orainkarian urriaren 1ean argitaratua.** Zarautz.

**Irudia > Zarautz****TORREIOIAREN INGURUKO ERAKUSKETA**

Zarauzko Torreoiak 100 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko torreoia ardatz izango duen erakusketa zabalduko dute bihar, 19:00etan, Zarauzko Torre Luzean. Aisialdirako

eraiki zuten Zarauzko Torreoia, Villapadiernako kondearen eta Muñizeko markesaren eta garaiko beste familia batzuen erabilera pribaturako. HITZA





AITOR MANTEROLA

## Mikel Emezabal eta Amaia Aldalur ◉ Udal Musika Banda eta San Pedro Abesbatza

Urriko bigarren asteburua berezia izango da Zumaiaiko musikari eta abeslari askorentzat. San Pedro Abesbatza eta Udal Musika Banda estudioan sartuko dira, diskoa grabatzeko. 'Suite' izenako du, eta bost lan bilduko ditu.

# «Partaide guztiontzat da erronka handia disko hau grabatzea»

### Aitor Manterola

Senar-emazteak dira Mikel Emezabal (Donostia, 1973) eta Amaia Aldalur (Zumaia, 1973), eta pasio berak lotzen ditu: musikak. Lanbide dute zaletasuna, eta orain, egitasmo berri batean are gehiago elkartu dira: diskoa grabatuko dute Zumaiaiko San Pedro Abesbatzak eta Zumaiaiko Udal Musika Bandak. *Suite* izena izango du, eta urriko lehen asteburuan grabatuko dute. Azaroaren 30ean aurkeztuko diete herritarrei, kontzertuan. Oso lanpetuta daude, gutzia prestatzen ari dira, baina ilusioak neke guztiei gaina har-

tzen die. Hala azaldu diote UROLA KOSTAKO HITZA-ri.

#### Nondik nora sortu zitzaizuen diskoa grabatzeko asmoa?

**Amaia Aldalur:** Bion kontua izan zen, baina gehienbat nirea. *Suite* bat kantatzen dugu, bere garaian Mikelek moldatu zuena. Kanta multzo bat da, Tomas Araguesena. Gabonetan kantatu genuen, eta esan nion Mikeli zergatik ez genuen grabatzen disko batean, eta hortik hasi zen dena. Eta barruraino sartu gara.

**Mikel Emezabal:** Abiapuntu bat hori izan zen, baina beste batzuk ere badauzka. Xabier Sarasolaren *Ave Maria* obra Zumaiaiko

Musika Jaialdiaren 25. urteurrenean egin genuen, duela sei bat urte, eta hori ere diskoan sartzea dela iruditu zaigu. San Pedro Abesbatzak eta Zumaiaiko Udal Musika Bandak elkarrekin egingo dugun aurreneko diskoa izango da.

#### Zenbat obra bilduko dituzue diskoan?

**A.A.:** *Suite* klasikoa, lehen aipatu dugun *Suite*-a, *Ave Maria*, *Amaia* eta *Itsasoa eta eguzkia* obrak izango dira diskoan. Pixka bat luzeak dira denak.

**M.E.:** 45-50 minutu tartean irauko du diskoak.

#### Zaila izan al zaizue obrak aukera-

#### tzea, batzuk kanpoan laga beharragatik?

**A.A.:** Aukera egitea ez da erraza, eta gero ere lanak izaten dira, pentsatzen duzulako ur handitan sartu zarela.

**M.E.:** Lotura izan behar zuten obrek, eta hori bilatzen hasten zara.

#### Zerk lotzen ditu diskoko abestiak?

**M.E.:** Diskoaren izenak lotzen ditu, *Suite*, oso zabala delako, zati ezberdinez osatua dagoelako. Irekia da, eta diskoa irekia izatea nahi genuen. Gainera, lehen esan bezala, bi *suite* egongo dira diskoan: Gabonetakoa eta klasikoa, biak Tomas Araguesenak.

#### Piezak aukeratu eta gero, zein izaten da hurrengo lana?

**A.A.:** Prestatzen hastea, buru-belarri. Grabazioa kontzertu bat baino gogorragoa da. Gogorrrena da, estudioan entzuten baita ateratzen dena, ez besterik. Elizan edo beste leku batean izanez gero, emozioekin beste zerbait lortzen duzu, eta entzuleek ere beste zerbait senti dezakete. Baina estudioan ez dago halakorik, eta ardu handia da niretzat. Kontuan izan behar da Abesbatzako eta Bandako kideak ez dira profesionalak, eta denontzat da erronka handia disko hau grabatzea.

#### Obra bat hartu eta diskoan sartu au-

**reko lanak zein dira?**

**M.E.:** Abestiak moldatuta zeuden, eta lan hori ez dugu egin behar izan. Baina pertsona bakoitzari egokitu behar zaio obra kasik-kasik, eta teknikariaren lana ere hor dago. Ez da musikaria izaten, nahiz eta musikaz asko-asko jakin. Abesbatza eta Banda elkarrekin grabatzen jartzea zaila da, teknikaren alderditik. Ahotsak, alde batetik, eta musika, bestetik; ez da erraza. Musikaren alderditik ere zaila da elkar uztartzea. Teknikariak ulertu egin behar du zer nahi dugun; hori ezinbestekoa da. Pieza batzuk abesbatzak bakarrik grabatuko ditu; beste batzuk Bandak bakarrik, eta elkarrekin izango dira beste batzuk. Ez badugu ondo antolatzen, anabasa izan daiteke. Zorionez, teknikari oso ona aurkitu dugu.

**A.A.:** Elkar estudioetan grabatuko dugu, eta teknikaria kanpotik ekarri dugu: Mikel Fernandez Kruxaga. Jende askorekin ari da grabatzen, eta berak alokatu du estudioa.

**M.E.:** Ezaguna da teknikaria. Esaterako, urtero Lekeition egundoko grabazioa egiten dute, gero telebistan eta emateko, eta berak dihardu teknikari lanetan.

**Bideoa grabatu behar al duzue marking off delakoarekin?**

**A.A.:** Beharko genuke grabatu.

**M.E.:** Egin nahi dugu, bai, gero marketina-eta egiteko oso baliagarria eta lagungarria izango delako. Egin behar dugu. Gaur egun ez da aski diskoarekin bakarrik. Sare sozialetan eta ia ezinbestekoa da halako bideoekin ibiltzea. Egoerak eskatzen du. Hor gabiltza gauza askorekin batera, eta azkenean, handitxo ari zaigu bihurtzen diskoaren proiektua.

**Zuek biok ari al zarete guztiaz arduratzen?**

**A.A.:** Iker Gonzalez eta Marixi Sesma ere ari dira. Gauza asko lotu behar dira: SGAE, udalaren laguntza, bestelako kontu batzuk... Eta laguntza behar da, bai. **Diskoaz gain, Abesbatzak eta Bandak kontzertuekin jarraitzen dute. Nolabaiteko oztopoa al dira diskoan erabat murgiltzeko?**

**M.E.:** Erabat gaude murgilduta diskoan. Oporretatik bueltan hasi ginen. Baina egia da larunbatean kontzertua genuela Bandakoek, eta hori ere lantzen aritu gara. Orain, larunbatetik diskoan soilik ari gara lanean.

**Noiz hasiko zarete grabatzen?**

**A.A.:** Urriaren 12an eta 13an. Segituan.

**M.E.:** Bi aste dauzkagu entsegu guztiak egiteko, elkarrekin aritzeko.

**Entsegu gehiago egin beharko dituzue diskoaren harira, eta horrek egundoko borondatea eskatuko die musikariei eta abeslariari. Horien lanik gabe, ezinezkoa izango da, ezta?**

**A.A.:** Bai, dudarik gabe.

**M.E.:** Lehen Amaiak esan du emozioena, eta esango nuke diskoan perfekzioa dela hitz gakoa. Edozein akats antzeman egiten

da, eta ez dizu balio grabazioak. Ondo atera arte grabatu eta grabatu egin behar da, eta pazientzia handia eskatzen du. Gogorra da, astuna, latza denentzat. Musikari profesionalentzat ere hala izaten da. Atera kontuak zer izango den profesionalak ez direnentzat.

**Lehendik ere badute musikariak eta abeslariak diskoak grabatzen eskarmentua, ezta?**

**A.A.:** Bai. Abesbatzak badu bat, baina ez zen izan estudio batean. Parrokian bertan grabatu zen, eta oraingoa ezberdina izango da. Beldurra diot oraingori.

**M.E.:** Beldurra baino gehiago, errespetua da.

**A.A.:** Erabateko konfiantza daukat Abesbatzako kideengan, jendeak badakielako bere lekuan



«Elizan edo beste lekuetan emozioekin beste zerbait lor dezakezu; estudioan ez»

«Erabateko konfiantza dut kideengan, bakoitzak badakielako bere lekuan egoten»

**AMAIA ALDALUR**  
San Pedro Abesbatzako zuzendaria

«Diskoaren izenak lotzen ditu abestiak, 'Suite', oso luzea eta irekia delako»

«Abesbatza eta banda elkarrekin grabatzen jartzea zaila da, teknikaren aldetik»

**MIKEL EMEZABAL**  
Zumaiaiko Udal Musika Bandako zuzendaria

egoten eta jartzen halako egoeretan. Haiek ere ulertu egin behar dute zertan ari garen, eta bakoitzaren uneko egoerak eragina izango du grabazioan. Egun guztiak ez dira berdina izaten, eta horregatik diot errespetuarena. **M.E.:** Duela sei urte grabatu genuen Bandan *Gora Zumaia* diskoa, eta gure lokalean grabatu genuen. Lan handia izan zen, baina oraingoa ezberdina da. Orduan berrogei lagun ginen, Bandakoak bakarrik, eta orain laurogei izango gara. Lehen berrogei aukera zeuden akatsak egiteko, eta orain laurogei dira. Amaiak aipatzen duen beldur edo errespetu hori hortik doa. Adibidez: sarreran baten bat aurreratu egin zaiela beste, eta horrelakoak. Nire ustez, bi aste hauetan lan ona egingo dugu, eta grabaziora ondo sartuko gara. Segurtasun hori ez bage nu, ez ginen sartuko diskoaren proiektuan.

**A.A.:** Garbi daukagu eta ziur gaude oso ondo aterako dela.

**Diskoarekin zer egingo duzue gero: saldu, oparitu, banatu?**

**A.A.:** Udal Musika Patronatuak babesten du ekimen hau, eta pen-

tsatzen dut salgai jarriko direla. Baina ez dago lotuta Zumaiaiko Udalarekin. Banatu ere egingo dira.

**Noiz izango da aurkezpena?**

**A.A.:** Azaroaren 30ean aurkeztuko dugu, kontzertuan. Hor izango da diskoa, eta hortik aurrerakoak lotzeko ditugu.

**Zumaiaiko Abesbatzaren eta Bandaren arteko elkar hartze hau diskoarekin amaituko al da, ala beste egitasmoren batzuekin segituko du?**

**A.A.:** Nahikoa izango da esperientzia hau! Bakoitzak bere gauzak dauzka egiteko.

**M.E.:** Kolaborazioak izan dira beti, kontzerturen batean edo, eta diskoarena berezia da. Kontuan hartu behar da Amaia eta biok senar-emazteak garelako, eta elkartasun horrek bultzada eman dio diskoaren asmoari. Bakoitzak bere ibilbidea izanik, Abesbatzak eta Bandak, beti egongo dira kolaborazioak.

**Gizarteko hainbat arlotan disziplinaren arteko elkar-hartzea gertatzen ari da. Musikaren baitan ere etorkizuna hortik joango dela iruditzen al zaizue?**

**A.A.:** Nik uste dut ezetz. Bakoitzak bere bidea dauka, eta teknikaren alderditik desoreka handia sortzen da. Izan ere, kontzertu bateratuetan, Bandak jan egiten du Abesbatza soinuaren. Orain, grabazioan ez da antzemango hori, baina kontzertuetan etsigarria ere izaten da Abesbatzako kideentzat Bandaren doinuek jatea ahotsarena. Noizean behin elkartuko gara, hori garbi dago, eta egin egin behar da, baina bestela, bakoitzak bere bideari eutsiko dio.

**Eguneko zenbat ordu ematen ari zarete diskoaren proiektuari?**

**M.E.:** Puff! Askok! Kontatu ere ez ditugu egiten. Ordu denak eskaintzen ari gara.

**A.A.:** Diskoarekin bizi gara aste hauetan.

**M.E.:** Diskoarena proiektu bat da, baina beste batzuk ere baditugu. Bandak, esaterako, bat itxi du berriki, joan zen larunbatean eman genuen kontzertuarena. Orain diskoarena daukagu, baina horrek ez du esan nahi ez garenik ari gerokoetan pentsatzen; esaterako, Gabonetako kontzertuan, Iñauterietakoan... Gure lana da, gustukoa da, eta alde horretatik zorteko gara.

**Zuen etxean musikak hartzen al du eguneroko bizikidetzaren zatirik handiena?**

**A.A.:** Bai. Oso zaila da bereiztea. Une batzuetan alde batera uzten dugu musika, beharrezkoa delako, baina bestela, *Suite* diskoarekin ari gara etengabe: bati deitu behar zaiola, beste bati email bat idatzi behar zaiola... Hori bai, asteburuetan, saiatzen gara diskoaren kontua alde batera uzten, musikarekin lotutako konpromisorik ez badugu behintzat.

• urolakosta.hitza.info

Iker Gonzalez zumaiarrak konposatu ditu 'Suite' diskoan entzungai izango diren bost obretatik bi: 'Amalur' eta 'Itsasoa eta eguzkia'.

# Kimika berezia, musikarekin

**A. Manterola**

Zumaiarra izango da ia erabat San Pedro Abesbatzak eta Udal Musika Bandak grabatuko duten *Suite* diskoa. Bost obretatik bi Iker Gonzalezek (Zumaia, 1976) konposatu ditu, eta diskoaren azala eta kontrazala Valentin Manterola margolariak egingo ditu.

Gonzalez umetatik hasi zen musika konposatzen. «Betidanik gustatu izan zait», dio. Eta hor jarraitzen du. Disko honetarako, *Amalur* eta *Itsasoa eta eguzkia* obrak konposatu ditu. «Aurrenekoa Bitoriano Gandiagaren poesia batean oinarritua da. Bereak dira letrak. Urtaeroez ari da, eta pasarte batzuk osorik hartu ditudan bezala, beste batzuen zatiak bakarrik erabili ditut». Tolosako Abesbatzen lehiaketaren aurreko jardunaldien baitan estreinatu da obra hori.

Bestearen egilea, zumaiarra da: «Balendiñe Albizu poetarena da *Itsasoa eta eguzkia*. Begira ari zaio itsasoari, eta deskribatu egiten du. Ilunabarraren berri ere ematen du». Lan hau zergatik aukeratu zuen aipatu du: «Zumaia izanik Albizu, egokia iruditu zitzaigun, herriari lotutako lana izango delako diskoa».

Amalur Abesbatzak bakarrik egingo du diskoan, pianoaren la-

guntzarekin. *Itsasoa eta eguzkia* ere horrela joango da, baina klarinetea gehituta. «Mikel Emezabalek berak joko du. Oso ona da, eta aukera baliatu beharra zegoen».

Musikarekin duen loturari beste katebegi bat gehitzea izango da diskoa Gonzalenzat. «Zaletasun handia daukat sormenerako, baina ez naiz musikari profesionala. Lanbidez eta ikasketaz kimikaria naiz, irakaslea unibertsitatean, orain lanik gabe nagoen arren. Musikarena afizioz egiten dut». Sortzeaz gain, organoa jotzen du San Pedro elizan, eta Abesbatzako kide ere bada. Sormena eta kantatzea zein organoa jotzea elkarri lotuta daudela iritzi dio: «Bi aldeak ezagutzea oso garrantzitsua da: idatzi edozer idatzi daiteke musikaren arloan, baina gero ezin da kantatu. Kantatzeko den obra bat idazteko beharrezkoa da kantaria izatea. Gertatu izan zaigu obra bat hartu eta kantatzeko zaila izatea. Bandan ere berdin gertatzen da. Musikalki ona izan daiteke lan bat, baina gero zaila jotzen».

Sormenari lotuta segituko du, ez du batere dudarik: «Ikasteko aukera ematen dit, batetik, eta gustatzen zaidana egiteko aukera, bestetik». Kimika berezia baitu musikarekin eta sormenarekin.

• urolakosta.hitza.info



AITOR MANTEROLA

## Unai Frantzesena ◊ Azpeitiko Musika Bandako zuzendaria

Patinetan ibiltzea lanetik atera eta deskonektatzeko modua da Frantzesenarentzat. Pentsatzeko balio dio, eta Azpeitiak bide onak ditu horretarako.

# «Patinak, lanetik irten eta haize pixka bat hartzeko dira»

Nerea Uranga Azpeitia

Unai Frantzesena (Azpeitia, 1974) Azpeitiko Musika Bandako zuzendaria da, perkusio irakaslea ere bai Juan Antxieta Musika Eskolan, eta Ze Esatek taldean ere ibili zen. Orain beste talde baten gonbita jaso duela aitortu du. «Gonbidatu egin naute, eta kanta batzuk ere bidali dizkirate, baina ikusi egin behar...», dio. Zaletasunetako bat patinetan ibiltzea du; lanetik irtenda haizea hartu eta kirola egiteko modu bat dela dio. Azpeiti inguruan horretarako bide egokiak daude, bere ustez.

UROLA KOSTAKO HITZA bandaren egoitzan hartu du Frantzesenak. Patinak ere bertan ditu gordeta. «Tarteren bat dudanean jantzi, eta buelta bat ematera joateko».

### Noiz eta nolatan hasi zinen patinekin ibiltzen?

Patinekin alaba jaio eta gero hasi nintzen, orain dela bederatzi-hamar urte. Oiarzunen bizi nintzen orduan, etxe ondoan bidegorria zegoen, eta jendea ikusten nuen bertan patinetan. *Neuk ere probatuko nuke ba* pentsatuta, merkealdietan merke-merke patinak erosi nituen; onak, gainera. Hasieran, lotsatuta bezala, gauetan eta ibiltzen nintzen, ezkutu antzean. Auzoan aurrena, hango parkean; aurreneko kolpeak ere bertan hartu nituen. Gero, Oiarzunen bidegorrian gora ibiltzera animatu nintzen, minatarra. Gora ondo, baina beherakoan abiadura hartu, eta han ibili nintzen ezin frenatuta. Une batean pentsatu nuen patinak kendu eta etxera oinez joatea, baina beste oinetakorik ez, eta aurrera egitea erabaki nuen, nola ahala.

### Zeure kasa ikasi al duzu?

Bai, neure kasa ikasi dut.

### Azpeitian bidegorrietan ibiltzen al zara patinetan? Nondik nora?

Ni normalean Lasao aldera joaten naiz, bidegorritik. Ia egunero,

ahal dudanean behintzat, buelta egiten dut, eta oso ondo dago inguru hori. Loiola aldera ere joan izan naiz, baina herritik motz samarra egiten da buelta. Luzeago egin nahi bada, Loiolako adokinetatik pasatu behar da, eta patinetan gaizki. Baina Lasao alderako bidea oso ondo dago. Badago goitik beherako tarte bat tunel batean, bihurtzea ere badena. Abiadura hartzen da, eta parean baten bat egokitzeko arriskua dago. Baina bestela oso ondo eta oso egoki dago.

### Eta patinetan ibiltzeak zer ematen dizu?

Lanean ordenagailu aurrean nazkatu, eta buelta bat emateko aukera ematen dit zaletasun honek. Azken batean, ordu erdi behar izaten dut patinetan Danona arteko buelta egiteko. Lanetik irten eta haize pixka bat hartzeko modua da. Beste batzuk kafea hartzera joaten diren bezala, ni patinetan buelta bat ematera joaten naiz. Egunez ez badut itzuli bat egiten, iluntzean joaten naiz, lanak bukatu samar utzita; zazpiak-zortziak aldera edo baita hamarretan ere. Zerbait egin egin behar dela eta kirola egiteko modu bat da. Geldirik ez dago egoterik.

### Azpeitian patinetarako zaletasunik ba al dago?

Nik gero eta jende gehiago ikusten dut patinetan. Hala ere, oraindik gehiegi ez da ikusten. Baina pertsona batzuekin ezustekoa ere hartu dut. Sekula patinetan imajinatu ere egingo ez nituenak ikusi izan ditut.

### Patinetan ibiltzea musikarako inspirazio iturria ere ba al da, edo haizea hartzeko soilik da?

Azken finean, kirola gauzak pentsatzeko modu bat ere bada; horretarako ondo etortzen den tarte bat da. Kirola egiten ari zaren bitartean, burua lanean izaten duzu. Gainera, askotan, buruan kantu bat sartzen zait, eta horrek



NEREA URANGA

markatzen dit erritmoa ere. Inspirazioa den? Ez. Baina buruari buelta batzuk emateko balio dit. Mendi buelta bat ematea bezala da, edo hondartzan etzanda egotea bezala.

### Patinetan musika entzuten joaten al zara?

Ez, ez. Gainera, kalean musika entzuten joaten den jende hori ez dut ulertzen. Patinetan eta musika entzuten joatea pixka bat

### Bandako entsegua bukatu eta patinetan buelta bat ematera joan izan gara batzuk

arriskutsua iruditzen zait, eta pixka bat antisoziala ere bada. Azkenean, txoriak eta autoak, eguneroko zaratak, entzuten joaten naiz.

### Azpeitiko Musika Bandako zuzendaria zara. Bandan gauza berriak egiten hasita bazeudete.

Mugitzen hasita gaude, baina herrian nahiko lotzen gaituzten ekintzak badauzkagu, tradizio hori mantentzen dugu. Erreperitorio berriak eta egiten ere ari gara, dena den. Esaterako, aurreko batean antzerkikoekin ere parte hartu genuen. Gauza asko proposatzen dira, baina gero lan asko eskatzen du horiek aurrera ateratzeko. Dena den, bandan saiatzen gara kontzertuetarako berritasunak sartzen edo abesbatzarekin kolaboratzen. Beti zerbait berria gehitzen saiatzen gara, bestela beti abesti berak jotzea...

### Irudikatzen al duzu banda patinetan?

Bandako beste batzuk ere ibiltzen dira. Egin izan dugu bandako entsegua bukatu, bandako lau edo bost elkartu eta Loiola aldera patinetan joatea. Baina banda patinetan nahiko zaila da, aldapan behera eta musika tresnekin.

### Jende berria animatzen al da bandako kide izatera?

Bai, bai. Musika eskolan maila hartuta dutela ikusten ditudan gonbidatzen ditut bandara. Bandan hasteko gutxieneko maila bat behar baita.

### Azpeitiko Musika Banda sasoiko al dago, jende aldetik eta?

Bai, ondo dago. Baina gorabeherak izaten ditu. Orain dela lau bat urte bandara sartu zirenak ikastera kanpora joan dira, eta 4-5 pertsona gutxiago dut ikasturte honetarako.

### Eta zeu zuzendari gisa gustura al zbiltza?

Bai, lanari gustua hartzen ari naiz. Aurretik talde txikiak zuzentzen eta ibilia nintzen, baina herriko banda zuzentzea erronka handi samarra izan da. Dena den, gustua hartzen ari naiz. Artxiboa ere pixka bat utzita zegoen, orain hori astindu eta gauzak txukuntzeko asmoa dut. Ondoren, denbora libre gehiago dudanean, zer egin daitekeen buruari bueltak ematen hasteko.